

Gazteak eta aisialdia

Kirol, irakurketa eta musikari lotutako Euskadiko gazteen ohiturak eta zaletasunak 2023an



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

- ❖ Ikerketaren fitxa tekniko
- ❖ Kirol-elkarte edo klubetako kide izatea
- ❖ Kirola egiteko maiztasuna
- ❖ Gehien praktikatzen diren kirolak
- ❖ Aurreko hilabeteen irakurritako liburuen kopurua
- ❖ Aurreko hiru hilabeteetan euskaraz dagoen libururen bat irakurtzea
- ❖ Irakurritako azken liburuaren ezaugarriak
- ❖ Sare sozialetan musika entzuteko maiztasuna
- ❖ Gehien entzuten den musikariaren ezaugarriak
- ❖ Emaitzarik aipagarrienak

❖ Metodologia: kuantitatiboa, inkesten bidez

- ☐ **Unibertsoa:** Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteak
- ☐ **Lagina:** 1.701 gazte
- ☐ **Informazioa biltzeko prozedura:** online, eta inkesta egiteko inkestarako esteka bidali zitzaion Euskadiko gazteen lagin bati
- ☐ **Galdetegia:** egituratua, norberak bete ahal izateko
- ☐ **Landa lanaren datak:** 2023ko azaroaren 6tik 30era artean
- ☐ **Lagin errorea:** $\pm \% 2,4$ (konfiantza maila $\% 95,5$ eta, teoriarik, $p=q=0,50$ izanik)
- ☐ **Ikerketa diseinatzea eta emaitzak aztertzea:** Gazteen Euskal Behatokia
- ☐ **Inkesten bilketaren eta datubasea sortzearen kudeaketa:** Ingartek Consulting S.L.


KIROLA



KIROL-ELKARTE EDO KLUBETAKO KIDE IZATEA

I. Kidetza, sexuaren, adinaren eta bizilekuaren arabera

*Gaur egun kirol-elkarte edo mendi talderen bateko kidea zara?
(baietz erantzun dutenen %)*



Euskadiko gazteen % 17,6 kirol-elkarte edo mendi talderen bateko kidea da 2023an.

Gizon gazteen artean kirol-elkarte edo mendi talderen bateko kide direnen ehunekoa emakume gazteen artean jasotakoa baino handiagoa da.

15 eta 19 urte bitarteko gazteen ia laurden bat kirol-elkarte edo mendi taldeetako kidea da. 20 urtetik aurrera ehunekoa nabarmen jaisten da.

Euskaditik kanpo bizi diren pertsonak Euskadin bizi direnak baino proportzio txikiagoan sartzen dira kirol-elkarteetan.

KIROL-ELKARTE EDO KLUBETAKO KIDE IZATEA

II. Kideztaren bilakaera, sexuaren, adinaren eta bizilekuaren arabera

*Gaur egun kirol-elkarte edo mendi talderen bateko kidea zara?
(baietz erantzun dutenen %)*

(kide direnen %)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Bizilekua			
		Emaku- meak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Euskaditik kanpo*
2016	23,8	13,7	33,4	33,1	21,8	17,8	17,5	24,1	26,0	
2021	21,9	17,3	26,4	30,7	18,1	16,2	24,1	18,0	26,6	
2023	17,6	15,2	19,9	23,2	14,4	14,9	17,6	17,5	19,4	10,6
Ez dago Euskaditik kanpo bizi diren euskal gazteei buruzko daturik 2016 eta 2021 urteetan										


Kirol-elkarte edo mendi taldeetako kide diren Euskadiko gazteen ehunekoa jaitsi egin da azken urteotan, batez ere gizon gazteen artean.

Emakumeen artean eta 25 eta 29 urte bitarteko pertsonen artean jaitsiera ez da hain nabarmena izan, 2016an eta 2021ean ere ehunekoak ez zirelako % 20ra iristen.

KIROLA EGITEKO MAIZTASUNA

I. Kirola egiteko maiztasuna 2023an

Zein maiztasunez egiten duzu kirola, bakarka edo taldean? (%)



Euskadiko gazteen erdiak baino gehixeagok gutxienez astean hiru egunetan egiten du kirola (% 52,9).

Eta talde horri astean egun batean edo bitan kirola egiten dutenen ehunekoa gehitzen badiogu, ikusten dugu lau gaztetik ia hiruk (% 73,8) astero egiten dutela kirola, intentsitate handiagorekin edo txikiagorekin.

Aitzitik, gazteen laurden batek (% 24,8) astean behin baino gutxiagotan egiten du kirola edo ez du inoiz edo ia inoiz egiten.

KIROLA EGITEKO MAIZTASUNA

II. Kirola gutxienez astean hiru egunetan egiten duten gazteen ehunekoaren bilakaera

*Zein maiztasunez egiten duzu kirola, bakarka edo taldean?
(kirola gutxienez astean hiru egunetan egiten dutenen %)*

(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Bizilekua			
		Emaku-meak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Euskaditik kanpo*
2012	40,2	29,6	50,2	49,3	39,2	35,0	41,4	35,5	47,3	
2016	49,0	37,2	60,3	54,5	49,2	44,2	48,3	48,3	50,3	
2021	56,4	52,2	60,7	58,7	55,2	55,3	55,8	54,6	59,4	
2023	52,9	45,9	59,5	57,8	47,9	53,0	56,4	51,6	54,9	47,7
Ez dago Euskaditik kanpo bizi diren euskal gazteei buruzko daturik 2012, 2016 eta 2021 urteetan										

Gutxienez astean hiru egunetan kirola egiten duten gazteen zifrarik altuenak 2021ean jaso ziren, Covid19aren pandemiaren ondorioz kirolari eta jarduera fisikoari emandako garrantziak bultzatuta.

2021etik 2023ra kirola gutxienez astean hiru egunetan egiten dutenen ehunekoa jaitsi egin da talde guztietan, Arabako gazteen artean izan ezik. Dena den, 2023an jasotako ehunekoak 2012koak baino altuagoak dira eta, talde gehienetan, baita 2016koak baino altuagoak ere.

Kirola gutxienez astean hiru egunetan egiten duten gizon gazteen ehunekoa emakume gazteei dagokiena baino askoz altuagoa da.

Gazteenek (15-19 urtekoek, hain zuzen ere) dute kirola gutxienez astean hiru egunetan egitearen ehunekorik altuena. 20 eta 24 urte bitarteko gazteen artean erdiek baino gutxiagok egiten dute kirola maiztasun horrekin.

KIROLA EGITEKO MAIZTASUNA

III. 2023an izandako maiztasuna, sexu eta adin-talde konbinatuaren arabera

Zein maiztasunez egiten duzu kirola, bakarka edo taldean? (%)

(%)	Emakumeak			Gizonak		
	15-19	20-24	25-29	15-19	20-24	25-29
Egunero	3,4	4,3	3,7	8,8	7,4	4,9
Astean 5-6 egunetan	14,9	9,8	10,3	26,7	18,8	18,8
Astean 3-4 egunetan	32,2	28,5	30,3	29,1	26,6	37,5
Astean 1-2 egunetan	16,8	21,6	26,7	22,7	19,2	18,8
Gutxiagotan	7,6	15,5	14,1	4,8	15,2	10,6
Inoiz ez edo ia inoiz ez	20,2	19,9	13,3	7,7	11,9	8,9
Ez du erantzun	4,9	0,3	1,6	0,2	0,9	0,5
Guztira	100	100	100	100	100	100
GUTXIENEZ HIRU EGUNETAN	50,5	42,6	44,3	64,6	52,8	61,2

Gizonen adin-talde guztietan gehiengoa osatzen dute kirola gutxienez astean hiru egunetan egiten dutenak. Eta gazteenak dira (15-19 urtekoak) maiztasun handiagoz egiten dutenak.

Emakumeen artean, 15 eta 19 urte bitartekoen taldean soilik osatzen dute gehiengoa astean hiru egunetan edo gehiagotan kirola egiten dutenak; hala ere, talde horretan bost emakumetik batek dio ez duela inoiz edo ia inoiz kirola egiten (% 20,2).

Bai gizonen artean bai emakumeen artean, 20 eta 24 urte bitartekoak dira kirola maiztasun txikiagoz egiten dutenak.

KIROLA EGITEKO MAIZTASUNA

IV. 2023an izandako maiztasuna, kirol-elkarteetako kideztaren arabera

Zein maiztasunez egiten duzu kirola, bakarka edo taldean? (%)


(%)	Guztira	Kirol-elkarte edo mendi talderen bateko kide izatea	
		Bai	Ez
Egunero	5,5	11,6	4,2
Asteaz 5-6 egunetan	16,8	37,0	12,6
Asteaz 3-4 egunetan	30,6	34,9	29,3
Asteaz 1-2 egunetan	20,9	12,7	22,8
Gutxiagotan	11,2	2,5	13,1
Inoiz ez edo ia inoiz ez	13,6	0,8	16,4
Ez du erantzun	1,4	0,4	1,5
Guztira	100	100	100
GUTXIENEZ HIRU EGUNETAN	52,9	83,5	46,1

Kirol-elkarte edo -klub bateko kide diren gazteek horrelako elkarteetako kide ez direnek baino intentsitate handiagoz egiten dute kirola (% 83,5ek eta % 46,1ek, hurrenez hurren, gutxienez asteaz hiru egunetan egiten dute kirola).

GEHIEN PRAKTIKATZEN DIREN KIROLAK

I. Kirolen zerrenda

Zein kirol egiten duzu nagusiki? Gehienez 2 erantzun
(kirol bakoitza aipatu dutenen %)*



Gimnasioan arietak egitea da Euskadiko gazteek gehien egiten duten kirol-modalitatea.

Ondoren korrika egitea eta mendira joatea datoz.

Hiru kirol jarduera horiek bakarka egin daitezke.


Gogoratu behar da inkesta osatu duten gazteek gehien egiten dituzten bi kirolak aipatu ahal izan zituztela, baina ez egiten dituzten kirol guztiak.

**Ehuneko batuketara 100 baino handiagoa da, pertsona bakoitzak bi kirol esan ahal zituelako*

GEHIEN PRAKTIKATZEN DIREN KIROLAK

II. Emakume eta gizon gazteen arteko aldeak

Zein kirol egiten duzu nagusiki? Gehienez 2 erantzun
(kirol bakoitza aipatu dutenen %)*



**Ehuneko batuketa 100 baino handiagoa da, pertsona bakoitzak bi kirol esan ahal zituelako*

Gimnasioan egindako ariketak dira kirol-jarduerarik ohikoenak bai gizon bai emakume gazteen artean.

Gizon gazteak emakume gazteak baino neurri handiagoan joaten dira gimnasia, bai eta korrika egin, futbolekin aritu (eta kirol honetan dago alderik nabarmenena), bizikletan ibili, pala, erraketa edo frontoi-kirolak egin eta saskibaloia jokatu ere.


Bestetik, emakumeak gizonak baino gehiago joaten dira ibiltzera, dantza eta zumba edo antzekorik gehiago egiten dute, bai eta yoga eta pilates ere. Oro har, emakumeek gizonak baino neurri handiagoan aukeratzen dituzte lesionatzeko arrisku gutxiago dituzten kirol-jarduerak.

Kirolak aipatu ez duten emakumeen ehunekoak gizonen ehunekoaren bikoitza da ia.

GEHIEN PRAKTIKATZEN DIREN KIROLAK

III. Adin-taldeen arabera aldeak

Zein kirol egiten duzu nagusiki? Gehienez 2 erantzun
(kirol bakoitza aipatu dutenen %)*



*Ehuneko batuketa 100 baino handiagoa da, pertsona bakoitzak bi kirol esan ahal zituelako

Gimnasio-jarduerak dira ohikoenak adin-talde guztietan.

Adinean gora egin ahala handitzen da gimnasiora joaten direnen ehunekoa, bai eta ondoko kirolak egiten dituztenenak ere: korrika egin, mendira joan, igeri egin, ibili eta yoga edo pilates egin.

Aitzitik, gazteenak dira (15-19 urtekoak) futboleak, saskibaloian eta taldeko beste kirolekin gehien jokatzeko dutenak, bai eta borroka-arteak edo ukipen-kirolak eta dantza edo zumba neurri handienera egiten dutenak. Kirol minoritarioetan ere ehuneko handiagoak dituzte.

Oro har, zenbat eta nagusiagoa izan orduan eta gehiago egiten dituzte bakarka egin daitezkeen kirolak.

GEHIEN PRAKTIKATZEN DIREN KIROLAK

IV. Kirolen zerrenda, sexu eta adin-talde konbinatuaren arabera

Zein kirol egiten duzu nagusiki? Gehienez 2 erantzun*

(Taldea bakoitzean gehien egiten diren 10 kirol-jardueren zerrenda eta bakoitzaren %*)

Emakumeak			Gizonak		
15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Gimnasioa (%17,7)	Gimnasioa (%30,9)	Gimnasioa (%41,2)	Gimnasioa (%21,6)	Gimnasioa (%39,3)	Gimnasioa (%45,3)
Dantza, zumba... (%13,3)	Ibiltzea (%11,8)	Korrika egitea (%15,6)	Futbola edo areto-futbola (%19,1)	Korrika egitea (%16,1)	Korrika egitea (%20,0)
Taldeko beste kirol batzuk (%8,8)	Dantza, zumba... (%11,5)	Mendia, eskalada (%14,4)	Pala, erraketa edo frontoi kirolak (%9,9)	Futbol edo areto-futbola (%13,2)	Mendia, eskalada (%15,9)
Borroka-arteak, boxeoa, kickboxinga... (%8,7)	Mendia, eskalada (%11,2)	Ibiltzea (%12,0)	Korrika egitea (%9,7)	Mendia, eskalada (%10,3)	Futbol edo areto-futbola (%11,2)
Korrika egitea (%6,5)	Korrika egitea (%9,9)	Yoga, pilates... (%9,9)	Saskibaloia (%8,9)	Pala, erraketa edo frontoi kirolak (%10,3)	Bizikleta (%9,8)
Ibiltzea (%6,0)	Igeriketa (%8,4)	Bizikleta (%8,6)	Borroka-arteak, boxeoa, kickboxinga... (%8,9)	Bizikleta (%9,8)	Igeriketa (%9,7)
Igeriketa (%5,8)	Bizikleta (%8,0)	Igeriketa (%8,0)	Bizikleta (%8,8)	Igeriketa (%6,4)	Pala, erraketa edo frontoi kirolak (%9,1)
Mendia, eskalada (%5,7)	Yoga, pilates... (%7,6)	Dantza, zumba... (%7,7)	Taldeko beste kirol batzuk (%8,1)	Borroka-arteak, boxeoa, kickboxinga... (%4,3)	Ibiltzea (%5,5)
Saskibaloia (%4,8)	Beste kirol batzuk (irristaketa, golfa...) (%3,8)	Pala, erraketa edo frontoi kirolak (%4,2)	Igeriketa (%6,6)	Saskibaloia (%4,1)	Borroka-arteak, boxeoa, kickboxinga... (%4,1)
Beste kirol batzuk (irristaketa, golfa...) (%4,4)	Pala, erraketa edo frontoi kirolak (%3,3)	Borroka-arteak, boxeoa, kickboxinga... (%3,6)	Beste ur-kirol batzuk (surfa, arrauna...) (%5,5)	Taldeko beste kirol batzuk (%3,9)	Beste ur-kirol batzuk (surfa, arrauna...) (%3,7)

* Kolektibo bakoitzean gazteen % 10ek baino gehiagok egiten dituzten kirolei itzala eman zaie.

Talde guztietan gehien egiten den kirol-jarduera gimnasioarekin lotuta dago, baina gimnasiora joaten diren gazteen ehunekoa handitzen da adinean gora egin ahala, emakumeen zein gizonen artean.


25 urtetik beherako emakumeen artean dantza edota zumba gehien egiten diren hiru kirolen artean daude; adin horretako gizonen artean nabarmena da futboleko jokatzeko duten ehunekoa eta, gainera, 25 urtetik beherako hamar gizonetik batek dio gehienbat bat pala, erraketa edo frontoi-kirolen bat egiten duela.

25-29 urteko emakume eta gizonen artean bigarren eta hirugarren tokian korrika egitea eta mendira joatea daude.

GEHIEN PRAKTIKATZEN DIREN KIROLAK

V. Lurralde historikoaren arabera

Zein kirol egiten duzu nagusiki? Gehienez 2 erantzun*
(kirol bakoitza aipatu dutenen %)



Hiru lurraldeetan gehien egiten den kirol-jarduera gimnasia da.

Arabako gazteek gainerakoek baino gehiago ibiltzen dira bizikletan (% 10,8) eta gehiago jokatzen dute saskibaloian (% 7,3).

Bizkaiko gazteak gainerakoak baino neurri handiagoan joaten dira gimnasia (% 33,9) eta futbolekin ere neurri handiagoan jokatzen dute (% 10,6).


Gipuzkoako gazteak dira korrika egitera gehien joaten direnak (% 15,4).

*Ehuneko batuketa 100 baino handiagoa da, pertsona bakoitzak bi kirol esan ahal zituelako

GEHIEN PRAKTIKATZEN DIREN KIROLAK

VI. Kirol-elkarteetako kideztaren araberrako aldeak

Zein kirol egiten duzu nagusiki? Gehienez 2 erantzun
(kirol bakoitza aipatu dutenen %)*



Kirol-elkarteren bateko kideen laurden batek adierazi du gimnasia joatea dela bere kirol-jarduerarik ohikoenetako bat, baina kirol-elkarteetako kide ez direnek baino proportzio txikiagoan.

Kirol-elkarteetako kide ez direnek baino neurri handiagoan jokatzen dute futboleak eta taldeko beste kirolak eta, beraien artean, taldeko kirolak bat egiten dutenen batuketara gimnasioara joaten direnen ehunekoa baino handiagoa da.

Halaber, kirol-elkarteetako kideek ehuneko handiagoak dituzte ondoko kirolak: borroka-arteak eta ukipen-kirolak, ur-kirolak, hala nola, surfa, arrauna eta abar, atletismoa eta beste kirol minoritarioak (golfa, irristaketa, etab.)

*Ehuneko batuketara 100 baino handiagoa da, pertsona bakoitzak bi kirol esan ahal zituelako


IRAKURKETA



AURREKO HILABETEAN IRAKURRITAKO LIBURUEN KOPURUA

I. Kopuru osoa

Zenbat liburu irakurri dituzu entretenitzeko azken hilabeteen? (%)



Gazteen % 66,5ek libururen bat irakurri du galdetu aurreko hilabeteen; zehatz-mehatz, % 29,8k liburu bat irakurri du, % 18,1ek bi liburu eta % 18,6k hiru liburu edo gehiago.


Aitzitik, Euskadiko gazteen heren batek ez du liburu bat ere irakurri aurreko hilabeteen (% 33,5ek).

Euskadiko gazte guztien batez bestekoa, aurreko hilabeteen irakurritako liburuen kopuruari dagokionez, 1,3 liburukoa da (libururen bat irakurri duten gazteen artean, 2,0 liburukoa da).

AURREKO HILABETEAN IRAKURRITAKO LIBURUEN KOPURUA

II. Kopurua, sexuaren, adinaren eta bizilekuaren arabera

Zenbat liburu irakurri dituzu entretenitzeko azken hilabetean? (%)



Irakurritako liburu batez bestekoa	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Bizilekua			
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Euskaditik kanpo
	1,3	1,5	1,1	1,5	1,2	1,2	1,3	1,3	1,4	1,5


Emakume gazteek gizon gazteek baino gehiago irakurtzen dute (emakumeen % 74,7k dio aurreko hilabetean libururen bat irakurri duela, gizonen kasuan % 59,0k).

15 eta 19 urte bitarteko gazteek 20-29 urtekoek baino gehiago irakurtzen dute (gazteenen ia laurden batek hiru liburu edo gehiago irakurri ditu).

AURREKO HILABETEAN IRAKURRITAKO LIBURUEN KOPURUA

III. Kopurua, sexu eta adin-talde konbinatuaren arabera

Zenbat liburu irakurri dituzu entretenitzeko azken hilabetean? (%)




Irakurritako liburuen batez bestekoa	Emakumeak			Gizonak		
	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
	1,7	1,4	1,4	1,4	0,9	1,1

15 eta 19 urte bitarteko emakumeak dira liburu gehien irakurtzen dituztenak: % 80,0k libururen bat irakurri du eta, zehazkiago, % 27,2k hiru liburu edo gehiago irakurri ditu.

Aitzitik, 20 eta 24 urte bitarteko ia gizon erdiek aitortu dute ez dutela liburu bat ere irakurri aurreko hilabetean.


AURREKO HIRU HILABETEETAN EUSKARAZ DAGOEN LIBURUREN BAT IRAKURTZEA

I. Euskarazko liburuak irakurtzea, sexuaren, adinaren eta bizilekuaren arabera



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Azken hiru hilabeteetan irakurri al duzu libururen bat euskaraz, denbora pasatzeko edo ikasketetarako edo lanerako? (%)



Euskadiko hamar gaztetik hiruk adierazi dute euskaraz dagoen libururen bat irakurri dutela aurreko hiru hilabeteetan, dela ikasketetarako, lanerako zein entretenitzeko (% 29,4k).


Emakumeek, oro har, gizonek baino gehiago irakurtzen dute, lehen esan bezala, eta euskaraz dauden liburuei dagokienez ere, gizonek baino ehuneko handiagoak dituzte (emakume gazteen % 32,8k euskaraz dagoen libururen bat irakurri du eta gizon gazteen kasuan, % 26,2k).

Euskaraz dauden liburuak irakurtzea ohikoagoa da 15 eta 19 urtekoen artean, beraz, pentsa daiteke ikasketekin lotura handia duela.

Aurreko hiru hilabeteetan euskaraz dagoen libururen bat irakurri duten gazteen ehunekoa handiagoa da Araban eta Gipuzkoa, Bizkaian baino.


AURREKO HIRU HILABETEETAN EUSKARAZ DAGOEN LIBURUREN BAT IRAKURTZEA

II. Euskarazko liburuak irakurtzea, sexu eta adin-talde konbinatuaren arabera



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Azken hiru hilabeteetan irakurri al duzu libururen bat euskaraz, denbora pasatzeko edo ikasketetarako edo lanerako? (%)



Euskaraz dauden liburuak irakurtzea ohikoagoa da 15 eta 19 urte bitarteko emakumeen zein gizonen artean (talde bi horietan % 40k baino gehiagok irakurri du euskaraz dagoen libururen bat aurreko hiru hilabeteetan).


20 eta 24 urte bitartekoen artean, euskaraz dauden liburuak irakurri dituztenen ehunekoa nabarmen jaisten da, 15-19 urtekoen ehunekoekin konparatuz gero, eta, gainera, alde handiak daude adin horretako (20-24) emakumeen eta gizonen artean, emakumeen ehunekoak altuagoak baitira.

25 eta 29 urte bitartekoen artean emakumeen eta gizonen arteko aldeak murrizten dira.

IRAKURRITAKO AZKEN LIBURUAREN EZAUGARRIAK

I. Irakurritako azken liburuaren izenburuaren aipamena, sexuaren, adinaren eta bizilekuaren arabera

Zein da irakurri duzun azken liburuaren izenburua? (erantzunen bat eman dutenen %)



Euskadiko hamar gaztetik zortzik irakurri duten azken liburuaren izenburua adierazi dute. Gainerakoek ez dute gogoratzen edo ez dute erantzun nahi.

Emakumeek gizonak baino neurri handiagoan adierazi dute zein den irakurri duten azken liburua.


Oro har, gehien errepikatu den izenburua “The seven husband of Evelyn Hugo/Los siete maridos de Evelyn Hugo” da, Taylor Jenkins Reid idazleak idatzia. Ondoren datoz “Miñan”, Amets Arzalluz idazlearena, “Nada”, Carmen Laforetarena, “1984”, George Orwellena, “La casa de Bernarda Alba”, Federico García Lorcarena, “Un cuento perfecto”, Elisabet Benavent idazlearena eta Karmele Jaiok idatzitako “Aitaren etxea”.

Zerrenda horretan azken urteetan USERako, hau da, Unibertsitatera sartzeko ebaluaziorako, derrigorrezkoak izan diren liburu batzuk agertzen dira: “Nada” eta “La casa de Bernarda Alba”.

IRAKURRITAKO AZKEN LIBURUAREN EZAUGARRIAK

II. Irakurritako azken liburuaren izenburuaren aipamena, sexu eta adin-talde konbinatuaren arabera

Zein da irakurri duzun azken liburuaren izenburua? (erantzunen bat eman dutenen %)



Emakumeek gizonak baino gehiago aipatzen dute, adin-talde guztietan, irakurri duten azken liburuaren izenburua. Gehien aipatu dutenak 15 eta 19 urte bitarteko emakumeak dira eta aipamen gutxien egin dituztenak 20 eta 24 urte bitarteko gizonak.

15-19 urteko emakumeek gehien aipatu dituzten liburuak hauexek dira: “Los siete maridos de Evelyn Hugo”, “Un cuento perfecto”, “Nada”, “Miñan”, “Aitaren etxea” eta “Culpa mía”, Mercedes Ron idazlearena. 20-24 urteko emakumeek gehien aipatu dituztenak “Los siete maridos de Evelyn Hugo” eta “Un cuento perfecto” dira. Eta 25-29 emakumeen artean hauek dira aipatuena: “Los siete maridos de Evelyn Hugo”, “Un cuento perfecto”, “Miñan”, “El silencio de la ciudad blanca”, Eva García Sáenz de Urturi idazlearena, bai eta Carmen Mola ezizenean idatzitako “Las madres” eta “La nena” ere.


15-19 urteko gizonak USerako derrigorrezkoak izan diren liburuak aipatu dituzte gehienbat: “La casa de Bernarda Alba” eta “Nada”. 20-29 urteko gizonen artean ez dago bereziki errepikatzen den izenbururik.

IRAKURRITAKO AZKEN LIBURUAREN EZAUGARRIAK

III. Irakurritako azken liburuaren idazlearen sexua, sexuaren, adinaren eta bizilekuaren arabera

Irakurritako azken liburuaren izenburutik abiatuta, liburu horren idazlearen sexua jakin daiteke (%)

GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD




Irakurritako azken liburuaren izenburua aipatu dutenen artean, gehiengoa osatzen dute gizonezko idazle batek idatzitako liburu bat aipatu dutenek (% 56,3k); beste % 38,4k, aldiz, emakume batek idatzitako liburuen bat aipatu du. Hala ere, alde handiak daude Euskadiko gizon gazteek eta emakume gazteek irakurritako liburuen idazleen sexuari dagokionez: emakumeen erdiek baino gehixeagok emakumeek idatzitako liburuak irakurri dituzte (% 53,8), gizonen artean, aldiz, ia lautik hiruk gizonek idatzitako liburuak irakurri dituzte (% 72,2k).

Bestetik, aipatutako liburuen % 1,0 hainbat idazlek idatzi dute eta idazle horien artean gizonak eta emakumeak daude, beraz, talde mistoa da. Eta gainerako % 4,2 aipamenetan ezin da jakin zein den idazlearen sexua, ez dakigulako nor den idazlea (adibidez, eskuliburu profesionalen kasuan) edo izenburu bereko liburu bat baino gehiago dagoelako.

IRAKURRITAKO AZKEN LIBURUAREN EZAUGARRIAK

IV. Irakurritako azken liburuaren idazlearen sexua, sexu eta adin-talde konbinatuaren arabera

Irakurritako azken liburuaren izenburutik abiatuta, liburu horren idazlearen sexua jakin daiteke (%)



25 urtetik beherako emakumeek irakurtzen dituzte gehien emakumeek idatzitako liburuak. 25-29 urteko emakumeen artean gehixeago dira gizonek idatzitako liburuak irakurri dituztenak, emakumeek idatzitakoak irakurri dituztenak baino.


Irakurritako azken liburuaren izenburua aipatu duten gizonen adin-talde guztietan gehienek gizonetzko idazleek idatzitako liburuak irakurri dituzte, baina ehunekoa are handiagoa da 20 urtetik gorako gizonen artean.

Emakumezko idazleen artean gehien irakurtzen direnak hauexek dira: atzerriko Taylor Jenkins Reid, Alice Kellen eta Collen Hoover, Espainiako Elisabet Benavent, Mercedes Ron, Joana Marcús eta Carmen Laforet, eta Euskadiko Karmele Jaio, Nerea Ibarzabal, Eva García Sáenz de Urturi eta Dolores Redondo. Gizonezko idazleen artean, aldiz, hauek: George Orwell eta George R.R. Martin, atzeritarren artean, Federico García Lorca, Javier Castillo, Juan Gómez-Jurado, Carlos Ruiz Zafón eta Carmen Mola ezizenarekin idazten dutenak, espainiarren artean, eta Amets Arzallus eta Ibon Martín, Euskadikoen artean.

IRAKURRITAKO AZKEN LIBURUAREN EZAUGARRIAK

V. Irakurritako azken liburuaren idazlearen jatorria, sexuaren, adinaren eta bizilekuaren arabera

Irakurritako azken liburuaren izenburutik abiatuta, liburu horren idazlearen jatorria jakin daiteke (%)




Irakurritako azken liburuaren izenburua aipatu dutenen artean, erdiek baino gehixeagok atzerriko idazle batek idatzitako liburu bat aipatu dute (% 52,6k). % 30,5ek Espainiako idazle batek idatzitako liburu bat aipatu du eta % 14,2k Euskadiko egilea duen liburu bat aipatu du. Gainerako % 2,7 kasuetan ez dakigu idazlearen jatorria.

15 eta 19 urte bitarteko gazteek eta Gipuzkoan bizi direnek aipatu dituzte gehien Euskadiko idazleek idatzitako liburuak. Aitzitik, Euskaditik kanpo bizi direnek aipatu dituzte gehien atzerriko idazleen liburuak.

IRAKURRITAKO AZKEN LIBURUAREN EZAUGARRIAK

VI. Irakurritako azken liburuaren idazlearen jatorria, sexu eta adin-talde konbinatuaren arabera

Irakurritako azken liburuaren izenburutik abiatuta, liburu horren idazlearen jatorria jakin daiteke (%)



15 eta 19 urte bitarteko gizonak dira Euskadiko idazleek idatzitako liburuak gehien aipatu dituztenak; oro har, 25 urtetik beherako gizonak beren adineko emakumeek baino neurri handixeagoan irakurri dituzte Euskadiko idazleek idatzitako liburuak.


Emakumeek gizonak baino gehiago aipatu dituzte Espainiako idazleek idatzitako liburuak, eta hori adin-talde guztietan gertatzen da.

20 eta 24 urte bitarteko emakume eta gizonak dira atzerriko idazleen liburuak gehien irakurri dituztenak.

IRAKURRITAKO AZKEN LIBURUAREN EZAUGARRIAK

VII. Irakurritako azken liburuaren hizkuntza, sexuaren, adinaren eta bizilekuaren arabera

Irakurritako azken liburuaren izenburutik abiatuta, liburu hori zein hizkuntzatan dagoen idatzita jakin daiteke (%)



Kasu gehienetan, aipatutako liburua gaztelaniaz idatzita dago (% 71,5). Aipatutako liburuen % 12,3 euskaraz idatzita dago eta % 6,7 ingelesez; bakarrik liburuen % 0,3 dago beste hizkuntza batean idatzita.


Beste % 9,2 kasutan ezin izan da jakin zein hizkuntzatan dagoen idatzita, izenburua berdina baita hizkuntza guztietan (esate baterako, “1984”).

15 eta 19 urte bitarteko gazteek eta Gipuzkoan bizi direnek adierazi dute gehien euskaraz idatzita dauden liburuak irakurri dituztela; Euskaditik kanpo bizi direnek aipatu dituzte gehien ingelesez idatzita dauden liburuak.

IRAKURRITAKO AZKEN LIBURUAREN EZAUGARRIAK

VIII. Irakurritako azken liburuaren hizkuntza, sexu eta adin-talde konbinatuaren arabera

Irakurritako azken liburuaren izenburutik abiatuta, liburu hori zein hizkuntzatan dagoen idatzita jakin daiteke (%)



Irakurritako azken liburuaren izenburua aipatu duten gazteak oinarri hartuta, ikus dezakegu talde guztietan gehienek gaztelaniaz dagoen libururen bat aipatu dutela; edozelan ere, ehunekorik altuena 25 eta 29 urte bitarteko emakumeei dagokie.

15 eta 19 urte bitarteko gizonak zein emakumeek aipatu dituzte gehien euskaraz dauden liburuak.


20 eta 24 urte bitarteko emakumeek irakurri dituzte gehien ingelesez dauden liburuak.

15-19 urteko gizonak dituzte ehunekorik handienak hizkuntzaren aldetik sailkaezinak diren liburuei dagokienez (izenburua ez baita aldatzen hizkuntza batetik bestera).

IRAKURRITAKO AZKEN LIBURUAREN EZAUGARRIAK

IX. Irakurritako azken liburuaren literatura-generoa, sexuaren, adinaren eta bizilekuaren arabera

Irakurritako azken liburuaren izenburutik abiatuta, liburu horren literatura-generoa jakin daiteke (%)



Irakurri duten azken liburuaren izenburua aditzera eman duten gazte gehienek (% 64,3k) eleberri bat aipatu dute, emakumeek gizonak baino gehiago (% 72,0k eta % 56,4k, hurrenez hurren). Zenbat eta gazteagoa izan orduan eta eleberri gehiago aipatzen dira.


Beste % 14,0k saiakuntza edo dibulgazio zientifiko edo kulturaleko liburu bat aipatu du. Literatura-genero honi dagokionez, gizonen ehunekoa (% 18,1) emakumeenaren ia bikoitza da (% 9,9) eta horrelako liburuen aipamenak ohikoagoak dira 20 urtetik gorakoen artean, baina, batez ere, Euskaditik kanpo bizi direnen artean (% 23,0k).

Autolaguntzako liburuak hirugarren postuan daude (gazteen % 7,2k dio irakurritako azkena horrelakoa zela). 15-19 urtekoen artean, aldiz, komikiak (batez ere "manga" izenekoak) daude hirugarren postu horretan, autolaguntzako liburuen gainetik. Beste literatura-genero batzuek (antzerkia, poesia, historia...) ez dira aipamenen % 5era heltzen.

IRAKURRITAKO AZKEN LIBURUAREN EZAUGARRIAK

X. Irakurritako azken liburuaren literatura-generoa, sexu eta adin-talde konbinatuaren arabera

Irakurritako azken liburuaren izenburutik abiatuta, liburu horren literatura-generoa jakin daiteke (%)



15 eta 19 urte bitarteko emakumeak dira eleberriak neurri handienera irakurtzen dituztenak; 20 urtetik aurrera eleberriak irakurtzen dituztenen ehunekoak beherantz egiten du. Gauza bera gertatzen da gizonen artean, nahiz eta emakumeenak baino ehuneko txikiagoetatik abiatu.

Saiakuntzak edo dibulgazio zientifiko edo kulturaleko liburuak irakurtzeak kontrako joera izaten du: 20 urtetik aurrera gehiago irakurtzen dira horrelako liburuak eta gizonen emakumeek baino ehuneko altuagoak dituzte adin-talde guztietan. 15 eta 19 urte bitarteko emakumeen artean gehiago dira irakurritako azken liburua autolaguntzakoa zela diotenak saiakuntza edo dibulgazio zientifiko edo kulturalekoa zela diotenak baino.

15-19 adin-taldeko gizonen artean, irakurritako azken liburua komikia zela dioten ehunekoa nabarmena da eta autolaguntzako libururen bat irakurri dutenena baino handiagoa da. Talde honetan ohikoagoa da ere antzerkia edo biografiak irakurtzea, autolaguntzako liburuak baino.


MUSIKA



SARE SOZIALETAN MUSIKA ENTZUTEKO MAIZTASUNA

I. Maiztasuna, sexuaren, adinaren eta bizilekuaren arabera

Zenbatero erabiltzen duzu Spotify, Apple music edo musika entzuteko beste sare sozial batzuk? (%)



Lau gaztetik hiruk egunero erabiltzen dute Spotify edo musika entzuteko beste sare sozial batzuk. Eta talde guztietan gehiengoa osatzen dute horrelako sare sozialak egunero edo ia egunero erabiltzen dituztenek.


25 urtetik beherako pertsonen 25-29 urtekoen baino neurri handiagoan erabiltzen dituzte musika entzuteko sare sozialak (25-29 urteko adin-taldean % 18,1ek ez ditu inoiz erabiltzen).

Egunero erabiltzen dituzten emakumeen ehunekoa gizonena baino handiagoa da.

SARE SOZIALETAN MUSIKA ENTZUTEKO MAIZTASUNA

II. Maiztasuna, sexu eta adin-talde konbinatuaren arabera

Zenbatero erabiltzen duzu Spotify, Apple music edo musika entzuteko beste sare sozial batzuk? (%)




Bai emakumeen artean bai gizonen artean 25 urtetik aurrera musika entzuteko sare sozialen erabilera murrizten da.

15 eta 19 urte bitarteko emakumeek bere adineko gizonek baino proportzio handiagoan adierazten dute musika entzuteko sare sozialak (Spotify, Apple music...) egunero erabiltzen dituztela (talde bien arteko aldea ehuneko 10 puntutakoa da). 20 eta 24 urte bitartean emakumeen eta gizonen ehunekoak, berriz, antzekoak dira. 25 eta 29 urte bitartean ere ez dago alde handirik emakumeen eta gizonen artean.

GEHIEN ENTZUTEN DEN MUSIKARIAREN EZAUGARRIAK

I. Gehien entzuten den abeslari edo taldearen aipamena, sexuaren, adinaren eta bizilekuaren arabera

Musikari dagokionez, zein talde edo abeslari entzuten duzu gehien? (%)



Gazte gehienek adierazi dute zein den gehien entzuten duten musika taldea edo abeslaria. Adinean behera egin ahala handitzen doa bere talde edo abeslari gustukoena adierazi dutenen ehunekoa. Pertsona batzuentzat oso zaila izan da abeslari edo talde bakarra esatea eta bat baino gehiago aipatu dituzte; kasu horietan azterketarako zerrendaren lehena soilik hartu da kontuan.


Gehien errepikatzen diren izenak (esan bezala, aipatutako lehena bakarrik aintzat hartuta) Taylor Swift eta En Tol Sarmiento (ETS) dira (horiek lider eztaba daezinak lirateke) eta ondoren, aipamenen arabera hurrenkeran, datoz Melendi, Berri Txarrak, Quevedo, Rotten XIII, Aitana, Zetak eta Morat.

Emakume gazteek gehienbat aipatzen dituzte Taylor Swift eta, ondoren, ETS; horien atzetik Melendi, Izaro, Berri Txarrak, Aitana, Morat eta Rotten XIII datoz. Gizonen artean aipamen gehien dituztenak ETS, Quevedo, Melendi, Rotten XIII eta Zetak dira (deigarria da gizonen gehien aipatu dituzten artistak gizonen bakarlariak edo gizonen lideratutako taldeak direla).

GEHIEN ENTZUTEN DEN MUSIKARIAREN EZAUGARRIAK

II. Gehien entzuten den abeslari edo taldearen aipamena, sexu eta adin-talde konbinatuaren arabera

Musikari dagokionez, zein talde edo abeslari entzuten duzu gehien? (%)



15 eta 19 urte bitarteko emakumeak dira talde edo abeslariren bat gehien aipatu dutenak.


Taylor Swift da emakumeek gehien aipatu duten abeslaria, hiru adin-taldeetan gainera, baina batez ere 20 eta 24 urte bitartekoen artean. Berririo ere hiru adin-taldeetan, bigarren postuan ETS dago eta hirugarren postuan dagoena, aldiz, aldatzen da adin-talde batetik bestera: 15-19 urteko emakumeen artean hirugarren postu hori Rotten XIII taldearentzat da, 20-24 urtekoen taldean Melendi abeslariarentzat eta 25-29 urteko emakumeen kasuan Izaro bakarlariarentzat.

Gizonen artean ez dago horrenbeste errepikatzen den izenik. 15 eta 19 urte bitarteko gizonak gehien aipatu dituzten artistak Quevedo, lehenengo postuan, eta ETS, bigarrenetan, dira. 20 eta 24 urte bitarteko gizonak gehien aipatu dituztenak ETS, Rotten XIII eta Berri Txarrak taldeak dira, hirurak antzeko portzentajetan. 25 eta 29 urte bitarteko gizonen artean gehien errepikatzen diren artisten izenak ETS, Melendi eta Zetak dira.

GEHIEN ENTZUTEN DEN MUSIKARIAREN EZAUGARRIAK

III. Abeslari bakarlaria edo taldea aipatzea, sexuaren, adinaren eta bizilekuaren arabera

Gehien entzuten den abeslariaren edo taldearen izenetik abiatuta, bakarlaria ala taldea den jakin daiteke (%)



Bere talde edo abeslaririk gustukoena aipatu duten Euskadiko gazteen erdiek bakarlariak aipatu dituzte eta beste erdiek musika-taldeak. Emakumeek gizonak baino gehixeago aipatu dituzte abeslari bakarlariak eta, horien artean, emakumezko bakarlariak nagusitzen dira, hala nola, Taylor Swift, Izaro eta Aitana, nahiz eta Melendi ere entzunenetakoa bat izan. 15 eta 19 urte bitarteko gazteek ere gainerakoek baino bakarlari gehiago aipatu dituzte eta adinean gora egin ahala talde gehiago aipatzen dira.


Bakarlarien artean aipatuena hauexek dira: Taylor Swift, posizio nabarmenean, eta atzetik Melendi, Quevedo, Aitana, Izaro, Bad Bunny eta Olaia Inziarte.

Taldeen artean aipatuena ETS da eta atzetik datoz Berri Txarrak, Rotten XIII, Zetak, Morat, Queen, Bulego, Gatibu eta Ibil Bedi.

GEHIEN ENTZUTEN DEN MUSIKARIAREN EZAUGARRIAK

IV. Abeslari bakarlaria edo taldea aipatzea, sexu eta adin-talde konbinatuaren arabera

Gehien entzuten den abeslariaren edo taldearen izenetik abiatuta, bakarlaria ala taldea den jakin daiteke (%)




15 eta 19 urte bitarteko gazteak, emakumeak zein gizonak, dira abeslari bakarlariak neurri handienera entzuten dituztenak. 20 urtetik beherako emakumeek gehien entzuten duten bakarlaria Taylor Swift da eta adin horretako gizonak gehien entzuten dutena Quevedo.

25 eta 29 urte bitartekoek gehienbat taldeak entzuten dituzte, gizonak emakumeek baino proportzio handiagoan. 25 eta 29 urte bitarteko gizonak gehien entzuten dituzten taldeak ETS eta Zetak dira; 25-29 urteko emakumeek gehien entzuten dituztenak ETS eta Berri Txarrak.

GEHIEN ENTZUTEN DEN MUSIKARIAREN EZAUGARRIAK

V. Abeslariaren edo taldeko kideen sexua, sexuaren, adinaren eta bizilekuaren arabera

Gehien entzuten den abeslariaren edo taldearen izenetik abiatuta, emakumea(k), gizona(k) edo talde mistoa den jakin daiteke (%)




Gazteen talde guztietan gehienbat gizon bakarlariak edo gizonek osatutako edo lideratutako taldeak entzuten dira, baina hau are ohikoagoa da gizonen artean emakumeen artean baino. Gizonek gehien entzuten dituzten musikariak gizonezkoak dira, argi eta garbi : ETS, Quevedo, Melendi, Rotten XIII y Zetak (azken bi horiek talde mistoak dira bere kideen artean badagoelako emakumeren bat, baina liderrak gizonezkoak dira). Emakumeek gizonek zein emakumeek egindako musika entzuten dute eta gehien entzuten dituzten musikariak hauek dira: Taylor Swift, ETS, Melendi, Izaro, Berri Txarrak, Aitana, Morat eta Rotten XIII.

Araban beste lurraldeetan baino gizonezko gehiago entzuten dira, Araban gehien entzuten direnak ETS, Quevedo eta Melendi baitira; Bizkaian gehien entzuten direnak Taylor Swift, ETS, Melendi, Zetak eta Quevedo dira eta Gipuzkoan Taylor Swift, ETS, Ibil Bedi eta Melendi.

GEHIEN ENTZUTEN DEN MUSIKARIAREN EZAUGARRIAK

VI. Abeslariaren edo taldeko kideen sexua, sexu eta adin-talde konbinatuaren arabera

Gehien entzuten den abeslariaren edo taldearen izenetik abiatuta, emakumea(k), gizona(k) edo talde mistoa den jakin daiteke (%)




Gizonek emakumeek baino gizonezko artista gehiago entzuten dituzte, eta emakumeen eta gizonen arteko alde hori are nabarmenagoa da 15 eta 19 urte bitartekoen artean. 15-19 urteko gizonen artean gehien entzuten diren musikariak Quevedo eta ETS dira.

GEHIEN ENTZUTEN DEN MUSIKARIAREN EZAUGARRIAK

VII. Abeslariaren edo taldearen jatorria, sexuaren, adinaren eta bizilekuaren arabera

Gehien entzuten den abeslariaren edo taldearen izenetik abiatuta, nongoa den jakin daiteke (%)




Aipatutako musikarien jatorria aztertzen badugu, ikusten dugu gazteen talde guztietan ehunekorik handiena atzerriko musikariei dagokiela.

Gehienbat Euskadiko edo Nafarroako abeslariak edo taldeak entzuten dituztenen zifrarik altuenak ondoko taldeei dagozkie: emakumeei, 20 eta 29 urte bitartekoei eta Gipuzkoan bizi direnei. Gogoratu behar dugu emakumeen artean gehien entzuten diren bost musikarietatik hiru Euskadikoak edo Nafarroakoak direla: ETS, Izaro eta Berri Txarrak. Hiru horiek badaude ere 20-29 urteko gazteek gehien entzuten dituzten bost musikarien artean. Eta Gipuzkoan ere gehien entzundako sei abeslari edo taldeen artean hiru horiek ditugu, bai eta Ibil Bedi ere.

GEHIEN ENTZUTEN DEN MUSIKARIAREN EZAUGARRIAK

VIII. Abeslariaren edo taldearen jatorria, sexu eta adin-talde konbinatuaren arabera

Gehien entzuten den abeslariaren edo taldearen izenetik abiatuta, nongoa den jakin daiteke (%)




25 eta 29 urte bitarteko emakumeak dira neurri handienez Euskadiko edo Nafarroako abeslariak edo taldeak entzuten dituztenak; izan ere, talde honetan euskal musikariak aipatu dituztenen ehunekoa eta atzerriko artistak entzuten dituztela esan dutenena ia berdina da, eta bi ehuneko horiek Espainiako musikariak entzuten dituztenena baino handiagoak dira.

Aitzitik, 15 eta 19 urte bitarteko gizonek aipatu dituzte gutxien euskal abeslariak edo taldeak eta, bestalde, gehien aipatu dituzte musikari espainiarrak.

GEHIEN ENTZUTEN DEN MUSIKARIAREN EZAUGARRIAK

IX. Abeslariak edo taldeak erabiltzen duen hizkuntza, sexuaren eta adinaren arabera

Gehien entzuten den abeslariaren edo taldearen izenetik abiatuta, zein hizkuntzatan abesten duten jakin daiteke (%)




Gazteek aipatu dituzten musikariek zein hizkuntzatan abesten duten ezartzeko orduan, batzuetan hizkuntza bat baino gehiago egotzi zaizkio musikari bati, hainbat hizkuntzatan abesten duelako. Hori dela eta, ehuneko guztien batuketa 100 baino handiagoa da.

Oro har, gazteek musika gehiago entzuten dute gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez baino. Emakumeek gizonak baino neurri handiagoan entzuten dituzte euskaraz abesten duten musikariak; halaber, 20 eta 29 urte bitarteko gazteek 15-19 adin-taldekoek baino euskarazko musika gehiago entzuten dute.


GEHIEN ENTZUTEN DEN MUSIKARIAREN EZAUGARRIAK

X. Abeslariak edo taldeak erabiltzen duen hizkuntza, sexu eta adin-talde konbinatuaren arabera



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Gehien entzuten den abeslariaren edo taldearen izenetik abiatuta, zein hizkuntzatan abesten duten jakin daiteke (%)




25 eta 29 urte bitarteko emakumeek entzuten dituzte gehien euskaraz abesten dituzten abeslariak edo taldeak, baina hori logikoa da kontuan hartuta adin horretako emakumeak direla Euskadiko edo Nafarroako musikariak gehien entzuten dituztenak, aurretik esan bezala.

Aitzitik, 15 eta 19 urte bitarteko gizonak dira euskaraz abesten duten musikariak gutxien entzuten dituztenak, horiek baitira euskal musikari gutxien aipatu dituztenak; era berean, 15-19 urteko gizonak Espainiako artistak aipatu dituzte gehien eta, ondorioz, beste taldekoek baino gaztelaniazko musika gehiago entzuten dute.

GEHIEN ENTZUTEN DEN MUSIKARIAREN EZAUGARRIAK

XI. Abeslariak edo taldeak erabiltzen duen hizkuntza, bizilekuaren arabera

Gehien entzuten den abeslariaren edo taldearen izenetik abiatuta, zein hizkuntzatan abesten duten jakin daiteke (%)



Gipuzkoako gazteak dira euskaraz egindako musika gehien entzuten dutenak, bai eta ingelesez dagoena ere. Gogoratu behar da lurralde horretan, gehien aipatutako hamar abeslari edo taldeen artean, zazpik euskaraz abesten dutela: ETS, Ibil Bedi, Berri Txarrak, Izaro, Zetak, Rotten XIII eta Bulego.


Aitzitik, Arabako gazteak dira gaztelaniaz abesten dituzten musikariak gehien entzuten dituztenak. Lurralde horretan Quevedo eta Melendi gehien entzuten diren musikarien zerrendan bigarren eta hirugarren tokian daude, hurrenez hurren.

Euskaditik kanpo bizi den euskal gazteriak entzuten du gehien ingelesez edo beste hizkuntza batean egindako musika.

GEHIEN ENTZUTEN DEN MUSIKARIAREN EZAUGARRIAK

XII. Abeslariaren edo taldearen musika-estiloa

Gehien entzuten den abeslariaren edo taldearen izenetik abiatuta, zein den bere musika-estiloa jakin daiteke (%)




Gazteek aipatutako musikarien estiloa ezartzeko orduan, abeslari edo talde batzuei hainbat estilo egotzi zaizkie, horrela uztartzen dituztelako bere abestietan. Horregatik ehuneko guztien batura 100 baino handiagoa da.

Euskadiko gazteek gehien entzuten dituzten musika-estiloak pop eta rock dira eta, ondoren, rap edo trap, reggaetoia, folk eta musika elektronikoa.

GEHIEN ENTZUTEN DEN MUSIKARIAREN EZAUGARRIAK

XIII. Abeslariaren edo taldearen musika-estiloa, sexuaren arabera

Gehien entzuten den abeslariaren edo taldearen izenetik abiatuta, zein den bere musika-estiloa jakin daiteke (%)*



Emakume gazteek gizon gazteek baino pop musika gehiago entzuten dute.


Gizonek emakumeek baino rap edo trap musika gehiago entzuten dute eta musika elektronikoari dagokionez ere ehuneko handiagoak dituzte gizonek.

*Ehuneko batura 100 baino handiagoa da abeslari edo talde batek hainbat musika-estilo uztartu ditzakeelako

GEHIEN ENTZUTEN DEN MUSIKARIAREN EZAUGARRIAK

XIV. Abeslariaren edo taldearen musika-estiloa, adinaren arabera

Gehien entzuten den abeslariaren edo taldearen izenetik abiatuta, zein den bere musika-estiloa jakin daiteke (%)*



Adin-talde guztietan gehien entzuten den musika-estiloa pop musika da.

Zenbat eta gazteagoa izan orduan eta rap eta trap musika gehiago entzuten da eta, izan ere, 15 eta 19 urte bitartekoek artean gehiago dira rap edo trap entzuten dutenak rock entzuten dutenak baino.

20 eta 29 urte bitartekoek artean, gehien entzuten dituzten musika-estiloen zerrendan, rock musika bigarren tokian dago.


Bestetik, 15 eta 19 urte bitarteko gazteek gainerakoek baino gehiago entzuten dute reggaetia eta, aldiz, 20 eta 29 urte bitartekoek baino gutxiago folk musika.

*Ehuneko batura 100 baino handiagoa da abeslari edo talde batek hainbat musika-estilo uztartu ditzakeelako

GEHIEN ENTZUTEN DEN MUSIKARIAREN EZAUGARRIAK

XV. Abeslariaren edo taldearen musika-estiloa, bizilekuaren arabera

Gehien entzuten den abeslariaren edo taldearen izenetik abiatuta, zein den bere musika-estiloa jakin daiteke (%)*



Hiru lurralde historikoetan gazteek gehien entzuten duten musika mota pop estilokoa da, baina horren ehunekorik altuenak Gipuzkoan jaso dira eta baxuenak Araban.

Rock estiloko musika gehiago entzuten dute bizkaitarrek beste lurraldeetakoek baino.

Araban Bizkaian baino gehiago entzuten dira rap, trap eta reggaetoia, eta Bizkaian, berriz, Gipuzkoan baino gehiago. Gauza bera gertatzen da ska, rumba eta flamenko estiloko musikarekin.

Folk musika gehiago entzuten dute Bizkaian eta Gipuzkoan, Araban baino.

Gipuzkoa da musika elektronikoa eta indie musika gehien entzuten den lurraldea.

*Ehuneko batura 100 baino handiagoa da abeslari edo talde batek hainbat musika-estilo uztartu ditzakeelako

GEHIEN ENTZUTEN DEN MUSIKARIAREN EZAUGARRIAK

XVI. Abeslariaren edo taldearen musika-estiloa, sexu eta adin-talde konbinatuaren arabera

Gehien entzuten den abeslariaren edo taldearen izenetik abiatuta, zein den bere musika-estiloa jakin daiteke (%)*

Emakumeak			Gizonak		
15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Pop (%50,8)	Pop (%47,1)	Pop (%47,6)	Rap, trap (%31,9)	Rock (%31,4)	Pop (%29,3)
Rock (%21,5)	Rock (%29,8)	Rock (%30,1)	Rock (%23,0)	Pop (%23,4)	Rock (%28,8)
Rap, trap (%15,9)	Folk (%15,6)	Reggaetolia (%11,7)	Reggaetolia (%20,2)	Rap, trap (%23,2)	Rap, trap (%13,0)
Reggaetolia (%13,5)	Rap, trap (%15,4)	Folk (%10,5)	Pop (%19,5)	Elektronikoa (%11,3)	Elektronikoa (%11,9)
Folk (%9,2)	Reggaetolia (%8,0)	Rumba, flamenkoa (%7,5)	Elektronikoa (%8,2)	Folk (%11,3)	Folk (%11,8)
Elektronikoa (%8,1)	Elektronikoa (%7,2)	Elektronikoa (%7,3)	Folk (%6,3)	Reggaetolia (%8,9)	Reggaetolia (%7,6)
Ska (%5,8)	Ska (%5,3)	Ska (%6,8)	Ska (%4,7)	Indie (%5,7)	Heavy, trash (%6,5)
Rumba, flamenkoa (%5,2)	Rumba, flamenkoa (%5,0)	Rap, trap (%6,7)	Indie (%3,5)	Ska (%5,1)	Rumba, flamenkoa (%4,7)
Indie (%3,1)	Indie (%3,2)	Indie (%6,4)	Rumba, flamenkoa (%3,2)	Heavy, trash (%2,9)	Ska (%3,2)
Reggae (%1,0)	Reggae (%1,6)	Reggae (%2,4)	Heavy, trash (%1,3)	Klasikoa (%2,1)	Klasikoa (%2,3)
Heavy, trash (%0,9)	Klasikoa (%1,6)	Heavy, trash (%1,7)	Klasikoa (%1,0)	Rumba, flamenkoa (%1,6)	Indie (%1,8)
Klasikoa (%0)	Heavy, trash (%1,0)	Klasikoa (%0,3)	Reggae (%0)	Reggae (%0,6)	Reggae (%1,3)
Beste estiloak (%4,1)	Beste estiloak (%0,7)	Beste estiloak (%1,4)	Bste estiloak (%2,9)	Beste estiloak (%1,8)	Beste estiloak (%1,9)

*Ehuneko batura 100 baino handiagoa da abeslari edo talde batek hainbat musika-estilo uztartu ditzakeelako

Emakumeen adin-talde guztietan gehien entzuten den musika-estiloa pop da eta, ondoren, rocka. 15-19 urteko emakumeen artean gehien entzuten den hirugarren estiloa rap edo trap dira, 20-24 urtekoen artean folk eta 25-29 urtekoen artean reggaetolia. 25 urtetik aurrera rap edo trap entzuten dutenen ehuneko nabarmen jaisten da.

Gizonen artean gustuak askotarikoak dira. 15-19 urteko gizonak gehienbat rap eta trap entzuten dute eta beste taldekoek baino neurri handiagoan entzuten dute reggaetolia ere; talde honetan pop musika laugarren tokian dago. 20-24 urteko gizonak batez ere rock entzuten dute, baina rap/trap estiloak ere ehuneko nabarmena du. 25-29 urteko gizonak pop eta rock musika entzuten dute gehienbat eta antzeko proportzioan; azken talde honetan heavy eta trash estiloek gainerako taldeetan baino pisu handiagoa dute.

KIROLA

- Euskadiko gazteen erdiek baino gehixeagok astean hiru egunetan edo gehiagotan egiten du kirola (% 52,9). Ehuneko hori handitu egin da 2012tik eta 2016tik hona, baina 2021ean jasotakoa baino txikiagoa da. Gazteen % 13,6k, aldiz, ez du inoiz edo ia inoiz kirola egiten.
- Gizonak emakumeek baino kirol gehiago egiten dute (gizonen % 59,5ek gutxienez astean hiru egunetan egiten du eta emakumeen kasuan % 45,9k egiten du maiztasun horrekin). Kirol gehien egiten dutenak 15 eta 19 urte bitarteko gizonak dira (% 64,6).
- Gazteen % 17,6 kirol-elkarte edo -klub bateko kide da. Ehuneko hori 2016an izandakoaren azpitik dago (orduan % 23,8 zen). 15 eta 19 urteko gazteek dituzte ehunekorik handienak (% 23,2) kirol-elkarteetako kide izateagatik.
- Kirol-elkarteetako edo -klubetako gazteek kide ez direnak baino maiztasun handiagorekin egiten dute kirola (% 83,5ek eta % 46,1ek, hurrenez hurren, gutxienez astean hiru egunetan). Elkartetako kideek gainerakoek baino taldeko kirol gehiago egiten dute.
- Euskadiko gazteek gehien egiten duten kirol-jarduera gimnasioarekin lotuta dago. Gazteei zeintzuk diren gehien egiten dituzten bi kirolak galdetu zaienean, % 32,4k gimnasia joatea esan du eta, bigarrenik, ehuneko askoz apalagoarekin (% 12,9) korrika egitea dago.
- Gizonak emakumeak baino neurri handiagoan joaten dira gimnasia eta korrika egitera, futbolekin gehiago jokatzen dute eta pala, erraketa edo frontoi-kirol gehiago egiten dute. Emakumeak gizonak baino gehiago joaten dira ibiltzera eta dantza, zumba edo koreografia duten kirol gehiago egiten dute, baina emakumeen artean ere gimnasioko jarduerak dira nagusiak.
- 15-19 adin-taldeko gazteek jokatzen dute gehien futbolekin, saskibaloian edo taldeko beste kirolekin, bai eta borroka-arteak edo ukipen-kirolak gehien egiten dituzte. Adinean aurrera egin ahala bakarka eta entrenamendu-ordutegi zurrunik gabe egin daitezkeen kirol-jarduerak gehiago egiten dira, eta, horrela, gimnasia, korrika egitera, mendira edo ibiltzera joaten direnen ehunekoek gora egiten dute.

IRAKURKETA (I)

- Gazteen % 66,5ek dio galdetu aurreko hilabeteen libururen bat irakurri zuela entretenitzeko; zehatz-mehatz, % 29,8k liburu bat irakurri zuen, % 36,7k bi liburu edo gehiago eta, aitzitik, % 33,5ek liburu bat ere ez. Erreferentziazko hilabete horretan irakurritako liburu kopuruaren batez bestekoa 1,3 da.
- Emakumeek gizonak baino gehiago irakurtzen dute (emakume gazteen % 74,7k libururen bat irakurri du erreferentziazko hilabeteen, gizon gazteen artean % 59,0k) eta 15-19 urteko gazteek ere 20-29 urtekoek baino gehiago irakurtzen dute. Gehien irakurtzen duen taldea 15-19 urteko emakumeena da (horien artean ia erdiek, % 47,5ek, bi liburu edo gehiago irakurri zituzten aurreko hilabeteen).
- Hamar gaztetik hiruk (% 29,4k) esan dute aurreko hiru hilabeteetan euskaraz dagoen libururen bat irakurri zutela. Kasu honetan kontuan hartu dira entretenitzeko, zein lanerako edo ikasketarako irakurri dutenak. Ehunekorik altuenak 15 eta 19 urte bitarteko emakume eta gizonak dagozkie (% 49,3 eta % 44,6, hurrenez hurren). Horiek gehienbat ikasten ari dira, beraz, pentsa daiteke euskarazko liburuak irakurtzea ikasketekin lotuta egongo dela neurri handian.
- Irakurritako azken liburuari dagokionez, noiz irakurri den eta zein hizkuntzatan idatzita dagoen kontuan hartu gabe, gehienbat eleberriak dira (% 64,3). Emakumeek gizonak baino eleberri gehiago irakurtzen dituzte, eta 15-19 urtekoek 20 urtetik gorakoek baino gehiago, nahiz eta talde guztietan gehiengoa izan eleberri bat irakurri dutenak.
- 20 urtetik aurrera gehien irakurtzen den bigarren literatura-generoa saiakuntza edo dibulgazio zientifiko edo kulturaleko liburuena da. Literatura-genero honi dagokionez, ehuneko handiagoak dituzte gizonak beren adineko emakumeek baino. 15-19 urteko emakumeen artean gehien irakurritako bigarren liburu-mota autolaguntzakoa da eta adin horretako gizonen artean komikiak, batez ere, “manga” generokoak.
- Oro har, gehien errepikatu diren izenburuak hauexek dira, aipamen handienetik txikienera: “The seven husband of Evelyn Hugo/Los siete maridos de Evelyn Hugo”, Taylor Jenkins Reid idazlearena, “Miñan”, Amets Arzalluzena, “Nada”, Carmen Laforetena, “1984”, George Orwellena, “La casa de Bernarda Alba”, Federico García Lorcarena, “Un cuento perfecto”, Elisabet Benaventena eta “Aitaren etxea”, Karmele Jaiorena.

IRAKURKETA (II)

- Emakumeek idatzitako liburuak gehiago irakurtzen dituzte emakumeek gizonen baino, batez ere 25 urtetik beherako emakumeek. Emakumezko idazle aipatuak Taylor Jenkins Reid, Alice Kellen eta Collen Hoover dira, atzerritarren artean, Elisabet Benavent, Mercedes Ron, Joana Marcús eta Carmet Laforet, espainiarren artean, eta Karmele Jaio, Nerea Ibarzabal, Eva García Sáenz de Urturi eta Dolores Redondo, Euskadikoen artean. Euskadiko gizonen, aldiz, batez ere gizonen idatzitako liburuak irakurtzen dituzte, batez ere 20 urtetik aurrera. Gehien irakurritako gizonen egileak hauek dira: atzerriko George Orwell eta George R.R. Martin, Espainiako Federico García Lorca, Javier Castillo, Juan Gómez-Jurado, Carlos Ruiz Zafón eta Carmen Mola ezizenarekin idazten dutenak, eta Euskadiko Amets Arzallus eta Ibon Martín.
- Gazte gehienek atzerriko idazleek idatzitako liburuak aipatu dituzte, % 14,2k soilik aipatu du Euskadiko idazle batek idatzitako libururen bat. 15 eta 19 urte bitarteko gazteen artean, emakume zein gizon, Euskadiko idazleek idatzitako liburuak aipatu dituztenen ehunekoa batez bestekoaren gainetik dago. Gipuzkoako gazteek Arabakoek edo Bizkaikoek baino neurri handiagoan irakurri dituzte euskal idazleen liburuak. Idazle horien artean gehien aipatu direnak Amets Arzalluz eta Karmele Jaio dira.
- Irakurritako azken liburuaren izenburua adierazi duten gazte gehienek gaztelaniaz idatzitakoren bat aipatu du (% 71,5ek). % 12,3k soilik aipatu du euskaraz idatzita dagoen liburu bat. Azken liburua euskaraz irakurri duten gazteen ehunekoa handiagoa da 15-19 urtekoen artean eta Gipuzkoan bizi direnen artean.
- Harreman zuzena dago euskaraz irakurtzearen eta idazlearen jatorriaren artean. Zenbat eta euskal idazle gehiago irakurri orduan eta euskarazko liburu gehiago irakurtzen dira. Euskaraz gehien irakurri diren liburuak Amets Arzalluzen "Miñan", Karmele Jaioaren "Aitaren etxea" eta Nerea Ibarzabalen "Bar Gloria" dira.
- Gainera, amaitzeko, esan dezakegu 20 urtetik beherako gazteak direla, oro har, gehien irakurtzen dutenak, eta, zehazkiago, euskarazko liburu gehien irakurtzen dituztenak, baina auresuposatu daiteke, kasu askotan, ikasketa-zentrotik agindutako edo gomendatutako irakurketak direla.

MUSIKA (I)

- Lau gaztetik hiruk (% 74,9k) egunero erabiltzen ditu musika entzuteko sare sozialak (Spotify, Apple music...). 25 urtetik beherako emakume eta gizonen 25 eta 29 urte bitartekoek baino gehiago erabiltzen dituzte horrelako sare sozialak.
- Zein den gehien entzuten duten abeslari edo taldea galdetu zaienean, gazteen % 29,4k Euskadiko edo Nafarroako bat aipatu dute, % 27,2k Espainiako artistaren bat aipatu dute eta gainerako % 43,4k atzerrikoen bat. Euskadi eta Nafarroako musikarien artean gehien aipatu dena ETS taldea da, posizio nabarmenean, eta ondoren Berri Txarrak, Rotten XIII, Zetak, Izaro, Bulego, Gatibu eta Ibil Bedi. Espainiako musikarien artean aipamen gehien jaso dituztenak Melendi, Quevedo eta Aitana dira. Atzeritarren artean Taylor Swift dugu nagusi, izan ere, adin-talde guztietako emakumeek gehien aipatu duten musikaria da Taylor Swift, eta atzetik datoz Morat, Queen eta Bad Bunny.
- Euskadiko gazteen % 25,1ek euskaraz egindako musika entzuten du, gehien entzuten diren Euskadiko edo Nafarroako artistek euskaraz kantatzen baitute (ez badira abesti guztiak, bai abestietako batzuk). Gehien entzuten diren musikarien % 46,5ek gaztelaniaz abesten dute, beste % 30,7k ingelesez eta % 4,4k beste hizkuntza batean. Ehuneko horien batura 100 baino handiagoa da, musikari batzuek hainbat hizkuntzatan abesten dutelako. Gipuzkoako gazteak dira euskarazko musika neurri handienez entzuten dutenak.
- Bakarlarien eta taldeen arteko banaketa oso orekatua da: % 50,2k abeslari bakarlariaren bat aipatu du eta % 49,8k talderen bat. Bakarlarien artean Taylor Swift, Melendi, Quevedo, Aitana eta Izaro nagusitu dira; taldeen artean, ETS, Berri Txarrak, Rotten XIII, Zetak eta Morat.
- Gazte gehienek gizonetako musikariak, bakarlariak edo gizonen osatutako edo lideratutako taldeak aipatu dituzte (% 67,5ek); emakumeen artean ere gehienek gizonen egindako musika entzuten dute, baina proportzioa gizonen artean jasotakoa baino txikiagoa da (emakumeen % 59,4k eta gizonen % 75,5ek). Gizonen egindako musika entzuten dutenen ehuneko handiena 15 eta 19 urte bitarteko gizonen dagokie (% 83,4) eta entzuten dituzten gizonetako musikarien artean Quevedo eta ETS dira gehien errepikatu direnak.

MUSIKA (II)

- Gehien entzuten diren musikariek egiten duten musikaren estiloari dagokionez, pop da gehien entzuten dena, gero rock eta hirugarren tokian rap edo trap. Atzetik geratzen dira (aipamen gehiagotik gutxiagora) reggaetoia, folk eta musika elektronikoa. Eta atzerago geratzen dira beste musika-estilo batzuk, hala nola, ska, rumba edo flamenkoa, heavy metal, etab.
- Emakume gazteek gehien entzuten duten musika-estiloa pop da eta bigarrenik rock eta horrela gertatzen da emakumeen hiru adin-taldeetan. Gizonen artean, aldiz, gehien entzuten den estiloa aldatzen doa adinaren arabera; 15-19 urteko gizonak batez ere rap edo trap entzuten dute, 20-24 urtekoek rock eta 25-29 urtekoek pop eta rock, ia proportzio berdinean.

Edizioa: 1.a, 2024ko apirila

Argitaratzailea:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa

Lehendakaritza

Gazteen Euskal Behatokia

Egilea:

Gazteen Euskal Behatokia

Diseinua eta maketazioa:

Gazteen Euskal Behatokia

